

## SORKUNTZA, GARAPENA & MANTENTZEA

Euskal Estatutik (2009.4.15)

*“Lau dira garaipen aukera hori indartzeko behar diren gauzak: kopuru nahikoa, tresneria, elkarrekiko konfidantza eta liderrak. Guda tresneriaz era guztietako armetaz eta derrigorrezko hornikuntzetaz ari naiz. Gauza hauek izan ezean gizonek nahiz eta ugari izan, ezin dezakete ezer egin. Ezta armek ere elkarrekiko konfidantzarik ez badago. Eta ezin liteke ezer egin indarrak koordinatuko dituen liderrik gabe, noren esanak denek dauden ados betetzeko. Ez horretara behartuak sentitzen direlako (esan bait dugu gizon hauek beraientzat ona eta zuzena ez dena egiterik ez dutela ulertzen) baizik eta bere dohaien edo habilezi militarren iritzi altua dutelako, edota atsegin dutelako. Lau gauza hauek atsekabeen esku izanez gero eta hauek bere ekintzen zuzentasunaren irizpidearen jabe izanez gero.....”*

Thomas Hobbes, *De Cive*

Aztertu gura dodan gaia oso sakona dela onartuz, azaletik eta nere gaitasunari dagokion mailan aztertzea baino ez dagokidala esan gura neuke ezer baino lehen. Ez naiz antropologo, ez soziologo ez eta politikan aditua, baina herri honetako kide naizen einean nik ere harria botako dut.

Gustiz frogaturik ez dagoela uste badut ere, orokorrean onartua da urruneko garai batean gizakia talde batuetan bizi zela pentsatzea. Gizarte hauek batuak zirela esatean, zatitugabeak zirela esan nahi dut, hau da ez zen gizatalde horren baitan talderik zeinek biolentzia fisikoa eta honen erabilpenaren mehatxuaren bidez beste talde bat lehenengoaren interesen lorpenerako erabiliko zuenik.

Gizarte batu hauen existentziak ez du inundi inora beraien kideen arteko biolentzia politiko ezarik frogatzen, gizataldeko banako guztiek biolentzia politiko beraien izaeran sakonean barneratuarik bait zuten. Biolentzia politiko hau ordea ez zen taldearen zatiketaren aldekoa, taldearen batasunaren alde eragiten zuten biolentzia politiko zen. Aintzinako erritual eta sinesmenetan oinarriturik nork bere buruari ezartzen zizkion arau eta tradizioak ziren jarrera politiko honen ezaugarri. Gizon hauek, gizatalde zatitua inoiz ezagutu ez bazuten ere, honen agerpena bortizki gorrotatu eta borrokatzen zuten.

Baina nunbait zatiketa eman zen, hainbat urteetan zehar gizakiak bortizki borrokatutako gaitza azaleratuko da eta estatuaren sorrera emango da.

Gizatalde batek (A taldeak), biolentzia fisikoa eta heriotz mehatxuaren bidez beste gizatalde bat (B taldea) bere aginduetara behartuko du. Gizonek taldearen eta banakoaren biziaren alde oinarritu zuten ekintza politiko erabat aldatu eta muinean heriotzaren alde den jarrera

politikoaz ordezkaturia izango dute; gobernatzaile eta gobernatuek osatzen duten eremu geografikoaz ordezkaturia, estaturaz ordezkaturia. Herrien heriotza eman zen eta aldeketa politiko hau lehenengoz pairatu zuten gizakientzat tragedia izugarria izan zela uler daiteke.

Baina heriotzaren mehetxupean antolaturiko gizarte zatituaren izaera biolentoak, gobernatzaile eta gobernatuen artean tentsioa izugarriak sortuko ditu, A eta B-ren arteko indar erlazioa ari mehe batetaz banaturia izatera eramango duena. Gauzak horrela tentsioak baretzeko asmoz gobernatuen kontsentimendua lortzera bideratuko dituzte indarrak gobernatzaileek, estaturaren berezko izaera gordetzera emanez. *“Botere politikoa beti biolentziaz sortua eta mantendua instituzionalizatu egin behar da, bere ezaugarriak diren iraupena eta eraginkortasuna aplikatzeko helburuarekin”.*

Botere politiko ororen oinarri oinarrian heriotz mehatxua izate gordinak, ez du berezko dituen botere iraupena eta honen eraginkortasuna haundiagotzen laguntzen. Giza antolaketa gordin zein biolento honen eszenifikazioak gobernatuaren haserrea eta egonezina areagotzen du eta haserre horrek gobernatzailearen iraupena kinka larrian jartzera eramanez lezake. Laister konturatuko dira beraien biolentziaren iraupenerako engainua askoz ere eraginkorragoa dela zapalduaren derrigorrezko kontsentimendua lortzeko ahalgin horretan.

Gobernatzailea pakezale eta zuzentasunaren eredu dela hedatzen saiatuko da eta helburu horretarako instituzioen sorkuntzaz baliatuko da. Gobernatzaileak, boterean jarduteko grinak eraginda, gobernatuen amets direnen sortzaile eta babesle agertzera behartuak izango dira, beraien berezko izaera erabat kontrakoak badute ere.

Lehen estaturaren sorreraren nundik norakoak ezezagunak badira ere, ez da horren zaila gainerako estatuen sorrera ulertzea.

Estatuen hedapenaren arrazoi nagusia gizatalde ezberdinek izateari eusteko izan duten grina da, estatu arrotzen izaera etnozidari aurre egiteko jarrera bakarra estatu bihurtzea delarik. Estatu bihurtzea lortu ez duten gizataldeak desagertu egin dira, ez dute estatuen mundu honetan tokirik bilatu. Euskaldunoi Estatuan osatu izanak eman digu bizia.

Estatuak “bata” bezala ezagutuak, bere grina bateratzaileak eta etnozidak bultzaturik, menperatuaren oinarri etnokulturalen desagertutara bultzatzen du eta hauen ordeko bereak ezartzera, hiritar apal eta obedienteak bihurtzen gaituzten oinarri etnokulturalak.

Herriak (Estatuak) dira oinarritzko agente politikoak, gobernatzaileen eraso etnozidei erantzun bat emateko gai diren agenteak. Rousseauk aipatu bezala “Obeditzen duen herria desagertu egiten da”, herri gobernatzaileak herri gobernatuaz bereiztua den herri bat osatzen bait du. Gobernatzaileen etengabeko erasoaren aurrean bere izaerari tinko eusteko gai ez den taldea ez da agente politikoa, ez beraz herria ere. Herriek gobernatzaileen indar etnozidei berezko eta kontrako zuzenbidean erantzun bat emateko gaitasunean dute beraien izatearen oinarri, gerrarako gaitasunak egiten du beraz gizatalde bat herri. Herriaren gerrarako gaitasuna da beraz gobernu “denek” herri batetatik erabat ezabatu nahi duen ezaugarria, herri bihurtzen duen ezaugarria bera. Gobernu oro da etnozida, baina gaur egun derrigorrezkoa den gaitza bihurtu da, etenik gabe kontrolatu beharreko gaitza.

Idatzi honen haseran Hobbesen testu interesgarria jarri dugu, nun atsekabeturik diren herriek garaipena lortzeko derrigorrez bete beharreko baldintzak aipatzen dituen:

- Jende kopuru nahikoa
- Armak
- Elkarrekiko konfidantza (oinarri etnokulturalak)
- Lidergoa
- Ideologia propioa

Egungo Euskal Herriak lehen 3 baldintzak betetzen ditu, herri bat badela somatu daiteke.

Lidergo eta ideologia propioaren baldintzak ez ditu betetzen, estatu etnozidek beraiei komeni zaien ideologia eta lidergo bat hedatzea lortu dute gure artean.

Bost baldintza hauek bete eskero irabazi daiteke!